

Internet duten enpresen %64k izapideak egiten dituzte administrazio publikoarekin modu elektronikoa


Euskal enpresek Internet bidez batez ere aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin jarduten dute

Internet erabiltzen duten euskal enpresen %64k bidez hau erabiltzen du noizbait administrazio publikoarekiko izapide edo zerbitzuetarako 2012an, Eustaten datuen arabera. Ehuneko hori %87,8 da 10 langile edo gehiagoko enpresetan.

Euskal enpresen %73,8k Internet darabil, beraz administrazioarekikoetan modu elektronikoa aritzen direnak %47,2 lirateke. 10 langile edo gehiagokoetan, %96,7k Internet dutenez gero, portzentajea %84,9 da.

Administrazioarekiko erlazio elektronikoak dauzkaten enpresen kopurua haziz joan da azken urteetan. 2001etik 2012ra Internet eduki eta haren bidez izapideak egiten dituzten enpresak %22,5etik %64ra hazi dira. 10 langile edo gehiagokoak aintzat hartuz, portzentajek handiagoak dira: 2001ean %43,9; 2012an %87,8.

1 grafikoa: Internet eduki eta haren bidez administrazio publikoarekin izapideak egiten dituzten enpresen bilakaera. 2001-2012. (%)



Iturria: EUSTAT. Informazio gizartearen inkesta-IGI-administrazioa

Euskal enpresek administrazioarekin eginiko izapide elektronikoak: informazioa lortu, Internet dutenen %56,6; inprimakiak lortu, %53,2; inprimakiak bete eta bidali, %43,4; administrazio-prozedurak modu erabat elektronikoan bete, %34,3.

Enpresen tamainari begiraturaz, 10 langile edo gehiagokoetan, izapide erabilienak berberak dira eta orden horretan, portzentaje handiagoekin.

1. taula: Internet duten enpresak, administrazio publikoarekin eginiko izapide elektronikoen motaren arabera. (%)


	Total	De 10 o más empleados
Informazioa lortu	56,6	81,8
Inprimakiak lortu	53,2	79,6
Inprimakiak itzuli	43,4	71,9
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoan izapidetu	34,3	59,6
Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) adierazi	34,1	57,5
Sozietateen zerga adierazi	28,9	52,7
Enplegatuen gizarte-kotizazioak adierazi	23,5	50,9
Lizitazio elektronikoko sistema batean proposamenak aurkeztu (e-procurement)	8,1	15,3
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazi	7,3	19,5
Beste batzuk	2,4	3,8

Iturria: EUSTAT. Informazio gizartearen inkesta-IGI-administrazioa

Izapideok zein administrazioarekin egiten diren: foru-aldundiak (%53,5); Eusko Jaurlaritza (%46,5); administrazio zentrala (%38,8); tokiko erakundeak (%27,2); Europar Batasuna edo besteren bat (%8,2).

Berriz ere portzentaje hauek handiagoak dira 10 langile edo gehiagokoak bakarrik aintzat harturik. foru-aldundiak (%78,1); Eusko Jaurlaritza (%70,8); administrazio zentrala (%68,9); tokiko erakundeak (%42,4); Europar Batasuna edo besteren bat (%20,4).

2 grafikoa: Internet eduki eta haren bidez administrazio publikoekin izapideak egiten dituzten euskal enpresak. (%)



Iturria: EUSTAT. Informazio gizartearen inkesta-IGI-administrazioa

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Juan Luis López Gonzalez

Tel.: +34-945-01 75 08 Faxa: +34-945-01 75 01